

## URIKALDUAK!



Itsas gañean ageri dira  
 Gizon ituak,  
 Diruditela beren chalupen  
 Ol banatuak!  
 Ta ondarretik datoz deadar,  
 Antsi, orruak,  
 Ama alargun, aur umezurtzak  
 Botatakuak!  
 . . . . .  
 ¡O zér orduak!... ta zenbat malko  
 Chukatzeukuak!



## PASAYAN!



(PAREGABEKO IRAKURLARI *Pepe* ARTOLA-RI)

Sartu nitzan Pasayan  
 Eche batian:  
 Andre bat eta aúrrak  
 Neuzkan aurrian,  
 Pilla tristian!...  
 Ta paretian

Arrantzako sariak  
 Iltze tartian.  
 Ontan, emakume ark  
 Galdetu ziran:  
 —¿Nondik dator berorri?  
 —Donostiatik.  
 —¡O jauna! (esan zuen)  
*¡Donos...tiatik!...*—  
 Eta malkóak zijoakizkan  
 Begietatik!  
 . . . . .  
 . . . . .  
 . . . . .  
 Aurchóak farrez zeuden  
 ¡Inozenzian!  
 T' orain ¡lo egongo dira!  
 ¡Ai!... esnatzian,  
 Egun bat ta bestian  
 Arkitutzian  
 Aitarik gabe...—¡an da  
 Zeru-erdian!  
 (Esangodie amak),  
 Ta *Donostian*  
 Aitaren ordekoák!—  
 ¡O, bai ama! ¡bai!...  
 Egin bezate ¡lo lo!  
 Zure aurchóak!

ANTONIO ARZÁC.

(Leida por el popular Pepe Artola en la funcion benéfica que, organizada por la sociedad local Union Artesana, tuvo lugar en el Teatro Principal de esta Ciudad el 11 de Mayo último.)

